

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza <sup>info</sup>

Asteartea, 2012ko azaroaren 6a. IX. urtea. 2.428. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)

## Ahots talde bikainak izan dira aurten, Tolosako Abesbatza Lehiaketan

Ukrainako Credok Kutxa Sari Nagusia irabazi du, baina ez hori bakarrik, Polifonia eta Floklora sailetan ere hoberena izan da eta euskal abesti baten interpretazio onena egin du

Txapelketako zuzendari artistikoaren, Luismi Espinosaren, hitzetan «aurten saririk jaso ez duten askok, lehen saria irabaziko zuketene beste urte batzuetan» **3**



Ukrainako taldeak irabazi du Tolosako 44. Abesbatza Lehiaketako sari nagusia; irudian abesbatzako zuzendaria, hunkituta, saria jaso eta gero. J. AMONARRIZ

**Koldo Nuñez** Geologian doktorea

### «Emozio indartsuak etxe baten hormetan itsasten dira»

‘Nola dakit nire etxea osasuntsua dela?’  
hitzaldia eskainiko du, gaur, Alegian **2**

### Olazabalek galdu du lau t’erdiko ligaxkako azken partida

Rico IV.aren aurka aritu zen, atzo arratsaldean,  
Tolosako Beotibar frontoian; 22-12  
emaitzarekin amaitu zen norgehiagoka **7**

### Erguinek eta Luquinek irabazi dute Amasako mendiatloia

Euskal Herriko zirukuitu  
barruko proba izan zen  
herenegungoa; Luis Mari  
Urizar billabonarra  
izan zen bigarrena **7**



harpidedunak **TXOKOA hitza**



Zozketan parte hartzeko deitu osteguna 14:30ak baino lehen **943 65 56 95** telefono zenbakira.



sarrerak

HITZAK harpidedunentzat **2 sarrera** ditu

**LAGUN ARO GBC**  
Unicaja  
saskibaloia partida

Azaroak 11 • Igandea  
18:00  
Donostiako Ilunben

Koldo Nuñez ◉

Geologian doktorea, geobiologoa eta psikoterapeuta

# «Lekuek pertsonari buruz hitz egiten dute; barrukoa kanpoan islatzen da»

Imanol Garcia Landa Alegia

Alegiako Udazkenean Kultura egitarauaren barruan, gaurkora-ko hitzaldi bat antolatu dute. Hitzaldiak *Nola dakit nire etxea osasuntsua dela?* izena du eta Koldo Nuñez (Donostia, 1958) geologian doktorea, geobiologoa eta psikoterapeutak emango du. Kultur etxean izango da solasaldia, 19:30ean hasita.

## Zer alor jorratuko duzu gaurko hitzaldian?

Etxe bat osasuntsua dela jakiteko hainbat gauza begiratu daitezke: etxea egiteko materialak osasuntsuak diren, etxearen orientazioa, kokalekua... Horretaz gain, ikusten ez dena begiratu daiteke. Esaterako, geobiologiak aztertzen duena: etxearen azpitik ur lasterrik pasatzen den, lurraren eremu magnetikoa ondo dagoen etxean, azpian faila geologikorik ote dagoen, kobazuloak ote dauden, mineralak pilatuta dauden, edo etxea eraikitako lekuan aurretik kanposanturik edo ospitalerik ote zegoen. Hori begiratzeko garai batean ur-aurkitzaileek edo erradiestesistek egiten zuten modura egiten da, hau da, pendulua eta hagatxoak erabiliz.

## Beste alor batzuk ere jorratzen dituzu, feng shui-a, adibidez.

Txinatarrek aspaldi hasi ziren bizi ziren tokietan zeuden energiak begiratzeko, eta feng shui esaten den ezagutzak garatu zuten. Horren bitartez ikusten da energiak nola sartzen diren etxe batean, nola mugitzen diren, nola blokeatzen diren, edo nola galtzen diren. Txinatarrek esaten dute bizitza ematen duen energia *txi* izenekoa dela, eta hori toki guztietan dagoela. Etxeak, edo lantokiak edo beste lekuek, pertsonari buruz hitz egiten digute, hau da,



HITZA

personaren barrukoa kanpoan islatzen da. Horrez gain, hormen memoria deritzona dago: etxe baten hormetan geratzen dira itsatsita bertan egon diren emozio indartsuak. Eztabaida handiak, edo indarkeria izan bada, edo zerbait oso ona egon bada, hori modu fononiko batean itsatsita geratzen da horma batean, kutsadura baten moduan. Hori pixkana askatzen doa eta horrek eragina izaten du bertan bizi direnetan. Badaude beste energia batzuk, hau da, gure artean dagoeneko ez daudenak. Esaterako, jendea joan denean, baina ez diogunean behar bezala agurra egin, ez diogu benetan joaten utzi. Hori etxe askotan aurkitzen dut. Baliabide psikologiko batzuen bidez lan-tzen da. Dolua egin behar da, eta arima edo energia hori joaten lagundu behar zaio.

## Badago horrelako ezagutzarik euskal tradizioan?

Ez dago zalantzarik. Trikuharriak eta menhirrak dauden lekuak bereziak dira energiaren aldetik. Baserri zahar ia guztiak oso ondo kokatuta daude, azpitik

urik pasa gabe, failarik ere ez dituzte azpian... Oso ondo aukeratu daude lekuak. Bestalde, herrietan izan ohi da jendea ura bilatzen aritzen dena, penduluekin edo urritzarekin. **Aipatu dituzun beste alorrek ezegunagoak dira, edo behintzat jende-ari zailagoa egingo zaio informazio hori jasotzea, ezta?**

Badakit zailagoak izaten direla, baina gero etxeetara joaten naizenean, energiak nonahi daude. Eta emozioak asko mugitzen dituzte. Etxeetara joaterakoan, askotan terapia egiten da, gauza pila bat ateratzen direlako.

## Nola eragiten diote osasuntsuak ez diren faktore horiek bertan bizi denari? Esaterako, azpian ur lasterra duenari?

Osasunean izan dezake eragina, baina izaten da ere pertsonaren sentsibilitatearen arabera. Badaude pertsona sentikorragoak eta beste batzuk gogorragoak. Literaturan denetatik dago. Adibidez, frantsesek aipatzen zuten minbizi kaleena, hau da, kale batzuetan minbizi gehiago zegoela eta horrelako kontuekin lotzen zituzten. Nik horrenbeste ez nuen esango, baina nire jardueran ikusi ditut beste arazo batzuk: buruko min asko, egonezinak, sistema immunea asko jaitzita... Eta bazi-rudien gauza horiekin lotuta zeudela, hauek aldatu dituzte eta arazoak hobetu edo kendu egin dira. Batzuetan nahikoa da ohea mugitzea. Besteetan kobrezko sareak jarri daitezke ohearen azpian.

## Horrelako gaietan jendearen interesa areagotzen ari da?

Zalantzarik gabe. Etxeetara joaten naizenean, gizon baten energia ateratzen dela esan, energia horrekin konektatu eta gaztea dela eta nola sentitzen den esatean, inoiz inork ez dit esan «txoratuta zaude». Jarrera oso ona izaten da; noski, jendea barrua asko mugitzen zaio, esperientzia indartsua izaten delako. Oso lagungarria izaten da.

## ↓ Iragarki laburrak

### LAN ESKAERA

**Etxeko lanak.** Etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko, emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. Autoa badauka. Deitu 943 696882 edo 606 521992 zenbakietara.

# Garbiñe Ubedak irabazi du Agustin Zubikarai saria

Kazetari tolosarrak 'Heldu den iragana' proiektuarekin jaso du nobela sortzeko beka

R. Calvo Tolosa

Garbiñe Ubeda kazetari tolosarraren proiektu batek irabazi du Ondarroako Udalak eta Elkar argitaletxeak antolatzen duten Agustin Zubikarai saria. *Heldu den iragana* du izena Garbiñe Ubedaren proiektuak. 36ko Gerran ibili eta gero, II. Mundu Gerraren amaieran Frantzia desageratutako Miguel Bermejo aitona miliziano anarkistaren arrastoren bila hasten da haren biloba Bakartxo. Inoiz ezagutu gabeko aitona harentzako gutunek osatuko dute eleberria, eta bertan, bilaketaren gorabeherekin batera, familiaren historia berreraikiko da. Epaimahaia azpimarratu du testuaren kalitate linguistikoa, estilo landu, malgu eta dotore bat



Garbiñe Ubeda. HITZA

duena, eta pertsonaien taxuera, sinesgarri eta ñabarduraz betea.

Bederatzi urtez nobela laburrentzako lehiaketa izan zena, 2010ean formatuz aldatu eta nobelak sortzeko beka bihurtu zen. Aurten, hamazazpi lan aurkeztu dira, eta horien artean Ubedaren proposamena aukeratu du Leire Bilbao, Xabier Mendigurenek eta Ana Urkizak osaturiko epaimahaia.

## → Laburrak

### Hauteskundeei buruz batzarra, ezker abertzaleak

**TOLOSA** › Tolosako ezker abertzaleak urriaren 2leko hauteskundetako emaitzen inguruko batzarra antolatu du. Batzarra gaur izango da, hilak 6, Tolosako udal batzar aretoan, eta 20:00etan hasiko da.

### Kode Penal berriari buruzko hitzaldia, parrokian

**TOLOSA** › Espetxe Pastoraltzak antolatua, gaur, hilak 6, hitzaldia izango da Santa Maria parrokiako bilera gelan, 19:30ean hasita. *Bizitza guztirako kartzela? Kode Penal berria* izango da gaia eta hizlaria Ainhoa Baglietto abokatua izango da.

### Kultur arloko diru laguntza eskatzeko aukera zabalik

**IBARRA** › Pasa den ostiraleko GAOn Ibarroako Udalak 2012 urterako deitutako kultura arloko diru laguntzen deialdia argitaratu zen. Eskaerak aurkezteko epea abenduaren 4a da eta Ibarroako udaletxean egin aurkeztu behar dira eskaerak.

### Espainiako banderari buruzko batzarra, gaur

**IBARRA** › Ibarroako Udalak batzarra deitu du gaurko. Ohar batean azaldu duenez, «Espainiako Gobernuaren aginduz, udaletxeko balkoian espainiar bandera jartzera derrigortuko gaituzte», eta hori dela eta, auzi hori aztertzeko herri batzarra egingo dute, udaletxeko batzar aretoan, 19:30ean hasita.

### Ezohiko aukera gaur 'Lo imposible' filma ikusteko

**TOLOSA** › *Lo imposible* filma ikusteko ezohiko aukera izango da, gaur, hilak 6, 20:30ean, Leidor aretoan. Sarrerak eta bonu bidezko gonbidapenak hartu ahal dira Leidorreko leihatilan, gaur, 19:30etik 20:30era.

### Bi ikastaro antolatu ditu Beti Gazteak elkarteak

**TOLOSA** › Beti Gazteak Ama-rozko jubilatuen elkarteak bi ikastaro antolatu ditu egoitzan egiteko. Josteari buruzkoa gaur hasiko da, 16:00etan, eta eskulanena bihar, 16:00etan ere. Ikastaro bakoitza 40 ordukoa da eta 42 euro ordaindu behar da. Informazio gehiago 653 747 192 (Joxe) edo 635 757 786 (Katy) zenbakietan.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Ukrainako Credo ganbera abesbatzak lau sari eskuratu ditu, eta tartean Kutxa Sari nagusia ere bai. JONE AMONARRIZ

## Abesbatza lehiaketan «inoizko ahots talderik onenak» entzun ahal izan dira

Ukrainako Credo ganbera abesbatza izan da Tolosako 44. abesbatza lehiaketako txapeldun nagusia

### Itzea Urkizu

Abesbatza lehiaketan inoiz izandako ahots talderik onenak aurrean entzun ahal izan direla azaldu dute txapelketa antolatzen arduradunak. Honen harira, batez ere, ahots taldeek emandako maila nabarmendu du, eta The Rose Ensemble eta Ensemble Quartonal taldeak, «lehiaketatik sekula pasa diren talde hoberenetakoak» direla dio Espinosak; ahots nahasiei dago-

kienez, berriz, irregulartasun handiagoa izan dela azaldu du. Haur lehiaketarik ez egin izana nabarmendu dute antolatzaileek, «batez ere, haurren saioak publiko jakina erakartzen duelako, eta urtero aretoa betetzen duelako», azaldu du Luismi Espinosak. Hala ere, datorren urtean berriro haur abesbatzak Tolosan izatea espero dute: «Egia esan, orain ezin dugu baiezkorik esan, diru laguntzen araberakoa delako, baina guztiaren gainetik, ahal duguna egingo dugu, eta ez zer gertatzen den».

Leidor erabat bete zuten amaiera kontzertuak eta nabarmentze-koa izan zen aretoko giro bikaina.

Agur arrakastatsua

### Agur arrakastatsua

Leidor erabat bete zuten amaiera kontzertuak eta nabarmentze-koa izan zen aretoko giro bikaina.

Credok lehiaketaren atarian sortutako aurreikuspenak bete, eta lau sari eskuratu zituen. Bate-tik, Lorenzo Ondarraren *Pater Noster* obra behartua hobekien interpretatu zuen taldea izan zen, epaimahaiaren ustez. Halaber, ahots nahasien polifonia nahiz folklore sailetan ere, irabazle suertatu zen abesbatza. Emanaldi guztiak kontuan hartuta, puntuaziorik altuena eskuratu zuen kora ere Credo bera izan zen, eta Kutxa Sari Nagusia irabazi zuten.

Ukrainarrekin batera, honako abesbatzak ere sarituak izan ziren: New Dublin Voices, Mikrokosmos, University of the Visayas Chorale, Latvian Voices, Ensemble Quartonal, Daarler Vocal Consort eta The Rose Ensemble.

### 44. Abesbatza Lehiaketa

#### KUTXA SARI NAGUSIA

- Credo. Ukraina.

#### IKUSLEAREN SARIA

- Ensemble Quartonal. Alemania.

#### EUSKAL ABESTI BATEN INTERPRETAZIO ONENA

- Credo. Ukraina. Lorenzo Ondarraren *Pater Noster* obragatik.

#### MUSIKA SAKRATUA

- 1. The Rose Ensemble. Amerikar Estatu Batuak.
- 2. Daarler Vocal Consort. Alemania.
- 3. Latvian Voices eta Ensemble Quartonal. Letonia eta Alemania (Exaequo).

#### MUSIKA PROFANOA

- 1. The Rose Ensemble. Amerikar Estatu Batuak.
- 2. Daarler Vocal Consort. Alemania.
- 3. Latvian Voices eta Ensemble Quartonal. Letonia eta Alemania (Exaequo).

#### POLIFONIA

- 1. Credo. Ukraina.
- 2. Mikrokosmos. Frantzia.
- 3. New Dublin Voices. Irlanda.

#### FOLKLOREA

- 1. Credo. Ukraina.
- 2. Mikrokosmos. Frantzia.
- 3. University of the Visayas Chorale. Filipinak.

## Erronka polita



### Iritzia

Migel Zeberio

Koru eta orkestra zuzendaria

Saio koloretsu, atsegin eta aberatsa, igande goizean Leidor antzokian dastatu ahal izan genuena. Aurreko egunetan, lehiaketan zehar gertatutakoaren lagina. Ezbairik gabe, beste urte batez, jaialdi honek artistikoki goi mailari eusteko duen gaitasunaren adierazle izan zen. Irabazleak, jada Tolosa eta beste-lako hamaika trantzetan zaildu-tako talde ezagunak genituen.

Lehendabiziko minututik berotu zen giroa, ikusleagoak ez baitzuen huts egin Alemaniako Ensemble Quartonal taldea saritzeko hautuan. Laukote gazteak, kantua eta antzezpenez baliabideak uztartuz, kalitatezko umorez gozarazi zigun. Menturaz, txapela janzterik ez zuten izan, Tolosako bezalako demetan, arauak ez betetzeak isuna baitakar. Eta hauena txikia izanagatik, nahikoa izan zen, lehendabizikotik, sailkapeneko hirugarren postura jauzi egiteko: emanaldiaren hamabost minutuko gutxieneko tartea ez zuten bete!

AEBko The Rose Ensemblek eskuratu zituen ahots taldeetako bi txapelak. Bere arerioen aldean, musikaren garai eta kontzeptu desberdinak lantzerakoan, erakutsitako estilo eta tinbre magu-

tasuna nabarmenduko nuke; polifonia klasiko zein garaikide desberdinak, herri monodiak zein gregorianoak, bakoitzari nortasun propioa eskaintzeko intenziak, aberastasunaren adierazle dira horrelako txapelketa bate-rako.

Hirugarren eta laugarren sari bana jaso zuten Alemaniako Ensemble Quartonal aldera daiteke aurrekoarekin. Guztia oso polita egina, baltsamikoa, baina nabardura gutxiagokoa behar bada. Edo baita sarietatik kanpo gelditutako Frantziako Quatuor Meliades emakume laukotea ere; lehen minututik erakargarri egin zitzaizkidan soinu borobil, sarkor eta ederrak, musikaren garai desberdinak zeharkatzen zituen heinean, ez zuten giro aldaketa nahikorik erakusten.

Gizon-emakumeen koruek ere, goizeko agintari eta ordezkarien desfileari kontrapuntu mamitsu-koa eskaini zioten. Hirugarren

sarietatik bat Filipinetara joan zen; Visayas unibertsitateko koruak esker onez eta sentimentu handiz, AEBtako (uharteetako nagusien) beltz espirituala eskaini zituzten. Irlandako New Dublin Voicesek, berriz, The Beatles aukeratu zuten. Lehia estuan ibili ziren, ordea, lehen eta bigarren sari-riren irabazleak.

Nonbait, epaileek Frantziako Mikrokosmos taldeko zuzendaria, Loïc Pierre-ri, ez zitoten barkatu bere itxurazko axolagabe-ria. Bere taldea, ganoraz eta trebetasunez gainezka dagoen makina da. Bide berrietan urratsak egitea du gustuko, eta hori ekitaldian ere argi utzi nahi izan zuen. Biolin eta kora, jolaskor, el-karrizketan jartzeko ez zuten oztoporik izan.

Ukrainako Credok, aurtengo garaile absolutuak, ez zuten zoriona ezkutatu. Pozarren eta saltoka ospatu zituzten sariak, argi zuten lehia estuaren ondoren lortuta-

koa zela emaitza. Nabarmentze-koa iruditu zitzaizkidan, Lorenzo Ondarraren *Pater Noster* obra bikainaren irakurketa, sentimentuz bete. Tinbre bikainez jantzi-tako talde ederrak urte bat gehia-goz erakutsi zuten, nagusitzeko bideak jorratzen badakiela. Guri-diren *Akerra ikusi degu* klasiko-tik, koreografia eta umorez bete-riko obra dibertigarrietara.

Hurrengo urtearen zain egotea besterik ez da geratzen, sanferminetan esan ohi den bezela. Tarte horretan antolakuntzak izango du astirik, eguzki eta itzalak az-tertu eta birplantatzeak.

Besteak beste, eta bertaraten diren taldeen goi-mailarekin parez pare, ekitaldiek herritarren-gan duten arrakasta kaskarra nabarmentzeko da; ezin ahaztutze-ko datua nire ustez. Jaialdiak aurrera egingo badu, inguruaren babesa jasotzea ezinbesteko egin-goa da, gizartearen aldetik, eta ekonomikoki. Erronka polita!

# Udazken usaina duten azokak

Kultur ekitaldiei azoka bereziarekin eman diote amaiera, Berastegin; lehiaketa bidez bertako produktuk ugari saritu dituzte

Bedaion azoka berezia izan zuten, eta jende asko ibili zen; 60 lagun bildu ziren bazkarian

### Enertiz Maiz Bedaio / Berastegi

Hainbat egun kultur ekitaldi bidez izan eta gero, igandean izan zen azoka bereziarekin eman zioten amaiera. Bedaiotarrek ere azoka izan zuten. Baita baita bestean ere, bertako produktuek izan ziren protagonista.

Berastegin, azokaz gain, hainbat lehiaketa egiten dituzte: gazta, postu, ahari, ardi, bildots, arroz esne, animalia eta burrazeak. Hainbat gain, argazki lehiaketak saririk ere banatu zituzten.

IV. Arroz Esne Lehiaketan, lehen saria Igone Aguirerek eskuratu zuen. Bigarrena Inma Artola izan zen, eta hirugarren saria Olatz Etxeberriarentzat. XIV. Postuen Lehiaketan, harrizki postu onenaren saria Edurne Otermendiatz izan zen. Bestelako postu onenaren saria, berriz, 6. mailako kasekek jasotzen.

III. Baratze Lehiaketako irabazlea, Inaki Ugarte mendia izan zen. Bere atzetik, Luis Salazar sailkatu zen, eta hirugarren saria Edurne Otermendiek eskuratu zuen.

V. Ahari, Ardi eta Bildots Lehiaketa ere izan zen Berastegiko azokan. Kasu honetan, ahari onenaren saria, Jose Ignazio Ugarte mendia izan zen. Ardi onenaren saria, ber Ugarte mendia izan zen. Ber Ugarte mendia izan zen. Bildots onenaren saria, ber Luis Salazar izan zen.

VI. Animalia Erakusketan, orde, bi sari banatu zituzten zozketak bidez. Animalia txikietan, Luis Salazar izan zen saritua, eta animalia handietan, Jon Ander

Aranalde. XXI. Gazta Lehiaketako lehen saria Maria Jesus Labaienentzat izan zen. Bigarrena saria Hipoli Lasarte, eskuratu zuen, eta atzetik sailkatu ziren Arantxa Garaiburu, Maria Intxaurrondoa eta Koro Artola.

Hiru gazta erdiak zozketatu zituzten, eta hauek izan ziren zehak sailkatuak: 5.277, 208 eta 1.028. Aurtengo argazki lehiaketak ere irabazleak baditu. Analogikotan hamargarren lehiaketa dute, eta lehen saria Iñar Etxezola irabazi zuen. Bigarren argazkirik onena Jaione Barriolak aurkeztu izan zen, eta hirugarren sailkatua, Mola Labaien. Digtalean laugarren aldiz dute aurtengoa, eta angazkirik onena Nahia Etxezola irabazi zuen.

IV. Arroz Esne Lehiaketan, lehen saria Igone Aguirerek eskuratu zuen. Bigarrena Inma Artola izan zen, eta hirugarren saria Olatz Etxeberriarentzat. XIV. Postuen Lehiaketan, harrizki postu onenaren saria Edurne Otermendiatz izan zen. Bestelako postu onenaren saria, berriz, 6. mailako kasekek jasotzen.

III. Baratze Lehiaketako irabazlea, Inaki Ugarte mendia izan zen. Bere atzetik, Luis Salazar sailkatu zen, eta hirugarren saria Edurne Otermendiek eskuratu zuen.

V. Ahari, Ardi eta Bildots Lehiaketa ere izan zen Berastegiko azokan. Kasu honetan, ahari onenaren saria, Jose Ignazio Ugarte mendia izan zen. Ardi onenaren saria, ber Ugarte mendia izan zen. Bildots onenaren saria, ber Luis Salazar izan zen.

VI. Animalia Erakusketan, orde, bi sari banatu zituzten zozketak bidez. Animalia txikietan, Luis Salazar izan zen saritua, eta animalia handietan, Jon Ander



Jende asko hurbildu zen Bedaio azokara; txikienek taloak egiten ikasi zuten. 11/24

Jatekoaz gain, artilea egiteko teknika, arizko eta artilezko lanak, kondroak, makilik, sagardoa egitea... izan ziren. Oñatiak arte nahiko talo eta gaztain jan ahal izan zuten jendek.

Bertako postuak produktuekin osatutako saski edo bat zozketatu zen, eta Alegialko J.M. Agirre izan zen zortehna.

Baburrun jate prestatu zuten bertan geratu nahiz zutenentzat, eta azkenean 60 lagun elkartu ziren Artubi elkarrean. Bazkari ederera egin zuten, eta «eguneko gorabeherak elkarri kontatu eta hurrengo urterako zita berri bat prestatzeko ideia berriak atera azkenoz kontu kontari artu ginen, diote antolatzaileek.




Bedaion zozketatu taloak ederera J.M. Agirire egokitu zitzaion. 11/24



Berastegiko azokan hainbat lehiaketa izan ziren, eta banatu ziren sari guztien irabazleak ikus daitezke; ikasleek ere beraien postua jarri zuten azokan. 11/24



### Tolosa



### BABARRUN KREMA MOKADUTXOAK

KM 0 ekimenaren barruan, Felix Belauzaran sukaldari aritu zen. Zerkausian, Goizean goizetik, sukalde txikia prestatu, eta babarrunarekin egindako mokadutxoak prestatu zituzten. 12.000ak jo eta berehala, eskuetatik kendu zizkieten prestatu

tutako guztiak. Berrobiko Iriarte jatetxeok sukaldaria da Belauzaran, eta mimo handiz egin zituzten mokadutxoak. Aza, babarrun krema, ibarriko piperrak zatiak eta buztarriko odolki haustu lehortua izan zuten dastatzeko. 11/24

### Orexa



### NARBAIZUKO KOBETARA BISITA

Kultur hamabostaldaren barruan, orexarrak Narbaizuko kobak bisitatu zituzten, ostegunean. Egun pasa egin zuten, eta kobak ezagutzeari buruz, kobetan onden jarritako gaztak atera zituzten. Bueltan, gazta horiek dastatu zituzten herriarek. Kultur hamabostaldia bukatzeko, bertik herri ari jendetsua egin zuten. 11/24

## San Martin jaietarako motorrak berotu dituzte

Amasan II. Azoka Bereziarekin hasi dituzte jaiak, eta VI. Gurpil Igoera egin zuten Alkizan, igandean

### E. Maiz Alkiza / Amasa

Alkizan eta Amasan dagoeneko San Martin jaietarako motorrak berotu dituzte. Amasan, II. Azoka Bereziarekin eman zioten hasiera, larunbatean. Alkizan, berriz, igandeko izan zuten lehen festa eguna.

Asteburu bat aurreratu, jai giro izan zen nagusi Amasan. II. Azoka Bereziarekin egin zuten, eta pilotalekua postuz bete zuten. Era guztiarekin produktuek jarri zituzten salgai. Jende ugari hurbildu zen goizean goizetik Amasara. Txikienek astoaren gainean ibiltzeko aukera ere izan zuten.

ostegunean izango dute. Ostralean, berriz, Irrien Lagunak kanta eta dantza ikuskizuna izango da txikienentzat.

Gurpil emaldiak buztaka Alkizan ere urtero ospatzen dituzte San Martin jaiak. Igandean hasi ziren motorrak berotzen, eta VII. Kantsi Gurpil Igoera egin zuten Errekaleitekin hasi eta Alkiza herriari iritsi arte. Arratsaldean, berriz, pilota partidak izan zituzten.

Alkizarrek ere, asteburu hau festaz bete-bete eginda izango dute. Txerri harropaketa, giza proba, karta jokoa, sokatira, hazkaria edota pilota izango dituzte.



Pilotalekua postuz bete zuten, Amasan. 11/24



Helduek eta haurrek karniol gurpil igoeran parte hartu zuten, Alkizan. 11/24





**Kirolak****↓ Kirol emaitzak****PILOTA**

<b>LEHEN MAILAKO LAU T'ERDIKO TXAPELKETA</b>	
Xala	20
<b>Bengoetxea VI.a</b>	22
Retegi Bi	15
<b>Barriola</b>	22

**Sailkapena**

<b>Lehen taldea</b>	
1. Arretxe II	1-0
2. Olaiola II	1-0
<b>3. Bengoetxea VI</b>	1-1
4. Xala	0-2

**Bigarren taldea**

1. Berasaluze VIII	2-0
2. Irujo	1-1
<b>3. Barriola</b>	1-1
4. Retegi Bi	0-2

**BIGARREN MAILAKO LAU**

<b>T'ERDIKO TXAPELKETA</b>	
Untoria	15
<b>Jaunarena</b>	22
Rico IV	22
<b>Olazabal</b>	12

**Sailkapena**

<b>Lehen taldea</b>	
1. Rico IV	2-1
2. Elezkano II	2-1
<b>3. Olazabal</b>	2-1
4. Apezetxea	0-3

**Bigarren taldea**

<b>1. Jaunarena</b>	2-1
2. Untoria	2-1
3. Lemuno	1-2
4. Gorka	1-2

**GIPUZKOAKO TXAPELKETA**

<b>Kadeteak</b>	
Hernani	11
<b>Peña-Aburuza (A. Saiaz)</b>	22
Lapke	22
<b>Santxe-Mendia (A. Saiaz)</b>	21

**Jubenilak**

Hernani	4
<b>Mujika-Imaz (A. Saiaz)</b>	22
Azkoitia	13
<b>Labaka-Aburuza (A. Saiaz)</b>	22
Tartaloetxe	6
<b>Larrea-Erasun (A. Saiaz)</b>	22

Intxurre	12
<b>Urdapilleta-Otaegi (A. S)</b>	22

**Seniorrak**

Lagunak	11
<b>Labaka-Zelaia (A. Saiaz)</b>	22
Intxurre	17
<b>Urbietta-Labaka (A. Saiaz)</b>	22

Beloki	22
<b>Mujika-Biain (A. Saiaz)</b>	19

Oiarpe	17
<b>Quina-Galarraga (A. Saiaz)</b>	22

**Ohorezko seniorrak**

<b>Aurrera Saiaz 1</b>	11
<b>Aurrera Saiaz 2</b>	22

**ARETO FUTBOLA**

<b>HIRUGARREN MAILA 7. jardunaldia</b>	
Bilbo- Ibarra	1-4
<b>Tolosala Hirukide-Mallabia</b>	9-1
Santurtzi- Egintza	11-2
Laskorain-Soloarte	3-3

**Sailkapena**

<b>1. Ibarra</b>	21 p
2. Bilbo	16 p
<b>3. Tolosala Hirukide</b>	14 p
<b>11. Laskorain</b>	8 p
<b>12. Egintza</b>	7 p

**Hurrengo jardunaldia**

<b>Ibarra- Goierri</b>	
<b>Soloarte- Tolosala Hirukide</b>	
<b>Egintza-Laskorain</b>	

**FUTBOLA**

<b>ERREGIONAL OHOREZKOA 8. jardunaldia</b>	
Oiartzun-Tolosa CF	3-1

**Sailkapena**

1. Hernani	24 p
2. Touring	16 p
3. Hondarrabia	15 p
<b>6. Tolosa</b>	14 p

**Hurrengo jardunaldia**

<b>Tolosa CF-Beti Gazte</b>	
-----------------------------	--

**SASKIBALOA**

<b>Maila nagusia 5. jardunaldia</b>	
Lizuan.com ISB	73
<b>Bide Bide Donosti</b>	66
1. Tabirako Baque	4-1
2. Mondragon Unib.	4-1
3. Seky.es	4-1
4. Lizuan.com ISB	4-1
<b>5. Bide Bide Donosti</b>	3-2

**Hurrengo jardunaldia**

<b>Bide Bide Donosti</b>	
Mikeldi	

**DUATLOIA**

<b>AMASAKO MENDI DUATLOIA Gionezkoak</b>	
1. Jon Erguin	1:12:08
2. Luis Mari Urizar	1:13:29
3. Unai Yus	1:15:18
<b>Emakumezkoak</b>	
1. Amaia Luquin	1:39:05
2. Aitziber Ibarbia	1:42:36
3. Laura Perez	1:54:10



Amasako duatloia. JONE AMONARRIZ

# Ibarrak sendo jarraitzen du hirugarren mailako sailkapenaren lehen postuan

Tolosala Hirukidek 9-1 irabazi du etxean; Egintza Transportes Lakuntzak 11-2 galdu du etxetik urrun

**Asier Imaz**

Areto futboleko, hirugarren mailako eskualdeko taldeek, markagailuaren aurpegi guztiak ezagutu zituzten asteburuan. Ibarrak eta Tolosala Hirukidek partida irabaztea lortu zuten; Laskorainek berdinketa erdietsi zuen, eta Egintzak porrota lortu zuen Bizkaian. Emaizta hauekin, Ibarrak sendo jarraitzen du lehen postuan, jokatuako partida guztiak irabazita. Azken partida denboraldiko zailenetakoa izan zitekeen, sailkapeneko bigarrenaren aurka jokatzeko baitzuen, etxetik urrun gainera. Hala eta guztiz ere, ibartarrek 1-4 irabazi zioten Bilbori.

Mailara igo berriak diren Tolosala Hirukidekoak, ezusteko ezusteko jarraitzen dute. Asteburuan, Mallabia gainditu zuten, eta ez edonola, 9-leko emaitzarekin bukatu baitzen partida. Hiru puntuei esker, hirugarren postuan daude tolosarrek.

Laskorainek aurreko denboraldian 2.B mailan jokatu zuen. Maila berrira egokitzen jarraitzen dute, beraz, nahiz eta jardunaldiak aurrera joan eta puntu premia areagotzen ari den horitxoaren artean. Larunbatean, bi puntu azken segunduan galdu zituzten, Soloarte talde indartsuaren aurka.

Zazpigarren jardunaldiko emaitzarik mingarriena Egintzak ekarri zuen etxera. Billabonarrek 11-2 galdu zuten Santurtziaren kantuan.

**Tolosala Hirukide**

Horiek horrela, espero zena baina garaipen errazagoa lortu zuen, joan zen larunbatean, Txis Arena pabiloian, Tolosala taldeak Bizkaiko Mallabia FS taldearen aurka. 9-leko emaitzak argi adierazten du etxeko taldearen nagusitasuna.

Partida hasi eta berehala hartu zuen aurrea Hirukideko taldeak markagailuan. Honela, bosgarren minuturako 2-0 irabazten zuten Hirukidekoak, eta aldea handituz joan ziren, atsedendira 6-0 argiarekin iritsiz. Aipatu behar da, gainera, gol zoragarriak ikusteko aukera izan genuela bertaritutakoak. Lehen zatia amaitu

ra aldera, talde bizkaitarrak aukera pare bat sortu zituen, baina hor agertu zen Jon atezaina bere lana bikain betetz.

Bigarren zatian egoera ez zen aldatu eta etxeko taldea nagusi izan zen. Aurkariek 7-lekoa lortu zuten, baina beraien etsipena nabaria zen, ez zutelako modurik ikusten tolosarrei aurre egiteko.

Era honetan eta Kike entrenatzaileak jokalarien artean minutuak banatzen zituen bitartean, ikuskizunaren maila mantendu zuen bukaerako 9-lekoa lortu arte. Hiru puntu gehiago taldearentzat, eta sailkapenaren goiko postuetan jarraitzearen saria Tolosala Hirukiderentzat.

Goleatzaileei dagokionez, Espigolek eta Aritzek hiruna gol lortu zituzten, Artolak bi eta Lizartzak bat. Garaipen hau merezi bezala ospatzeko asmoz, taldea herriko elkarte ezagun batean bildu zen, Miguel eta Inigo zaleek prestatutako afari bikaina dastatzeko asmoz, giro ezinhobean.

**Laskorain**

Baldintza zorrotzeko frogari aurre egin zion Laskorainek joan den larunbatean Usabalgo polikiroldegian. Azken urteetan zehar 2.B mailan aritutako Soloarte talde boteretsuaren aurka lehiatu behar izanak, ez du beste izendapenik merezi, eta tolosarrek gaur egun duten puntu premiak presio gehigarri bat ezartzen zuen taldearengan.

Arerioak bildutako ezaugarriak ez ziren jolaserako aproposenak, eta errealitatearen ezagupen osoarekin, lehiaketarako prest kantaratu ziren Aitorren mutilak, beste edozein modutako xedapen batek porrot sahistezin bat ekarriko zuela jakinik.

Ez zen batere ondo hasi partida etxeontzat, 0-1 aurreratu baitzi-

ren bizkaitarrak; baina estreineko sentsazio txarrei buelta ematen jakin, eta Murgik eginiko bitartez, 2-lekoa ezarri zuten markagailuan lehengo zatia amaitu baino lehen. Bitarte horretan, atezain bizkaitarra kanporatua izan zen, baina bi minutu horietan, nahiz eta gizon bat gehiagorekin jokatu, ezin izan zuten abantaila areagotu horitxoek.

Bigarren zatian, 3-lekoa lortu zuten etxekoak, harrobiko jokalaria den Zumeta gazteak bere debutean eginiko golari esker, eta neurketa itxura onez margotzen hasia zen ordurako. Jakina da hala eta guztiz ere, areto futboleko azken unera arte besorik ezin dela jaitsi, eta bilbotarrek 3 minuturen faltan izua sartu zuten ikastolakoan gorputzean, 3-2koa lortuz eta markagailuan aldea murriztuz.

Jokaldi ero baten ondoren, azken segunduan, epailek area ertzean Laskorainen aurka falta adierazi zuten. Bilbotarrek zuzeneko jaurtiketa honekin lortu zuten berdinketa, partidaren azken hasperenean.

Kolpe gogorra ezbaierik gabe Aitorren mutilek jasotakoa. Hiru puntuek azken unean modu horretan ihes egin arren, aurrera begiratu beharra dago, eta urrutiegira joan gabe, datorren astean Villabonako Egintza taldearen aurka beste aukera berri bat izango dute horitxoek beharrezkoa zaien garaipen berria eskuratzeke.

Larunbatean Usabalen, Javi ordezkaria, Aitor entrenatzailea, Endika, Telleria, Murgi, Belloso, Etxebe, Ekhi, Vazquez, Zumeta, Alonso eta Aratz izan ziren. Bigarren taldeari dagokionez, Santxoren mutilek 4-2 irabazi zuten Horbel Tabernaren aurka, eta bigarren postuan dira liderraren puntu kopuru berdinarekin.



Ibarra areto futbol taldeak zazpi partidatik zazpi irabazi ditu. TXEMA VALLÉS



Mikel Olazabal aresoarra Rico IV.aren aurka, atzo Tolosako Beotibar pilotalekuan. A. IMAZ

## Mikel Olazabal aresoarra lau t'erdiko txapelketatik kanpo gelditu da

Lau t'erdiko txapelketaren ligaxkako euren partidak irabazi dituzte Abel Barriolak eta Oinatz Bengoetxeak

### Asier Imaz

Mikel Olazabalek atzo jokatu zuen Lau t'erdiko Pilota Txapelketaren ligaxkako azken partida, Tolosako Beotibar pilotalekuan. Jaialdiko lehen norgehiagoka izan zen, eta aresoarrak 22-12 galdu zuen Rico IV.aren aurka. Mikel Olazabalek 17 tanto behar zituen finalerdietara sailkatzeko, baina bai markagailuan eta baita jokoa ere, nahikoa urrun gelditu zen helmuga horretatik.

Tolosan pilotazale ugari elkartu ziren atzo, Beotibarren jaialdi ederra antolatuta baitzuten enpresak: hiru partidetatik bi txapelketakoak ziren.

Mikel Olazabal eta Rico IV.a 16:30etan irten ziren kantxara.

Sakea gorri atera zen, ondorioz, lehen pilota aresoarrak astindu zuen, hori bai, motz gelditu zitzaion. Sakea huts egin ondoren, errioxarrak markagailuko lehen aldean lortu zuen, baina Olazabalek ez zion alde egiten utzi. Hasierako tantoak parekatuak izan ziren, baina Rico IV.ak pilota biziago ibiltzen zuen, eta partidaren berriro ere aurea hartzea lortu zuen. Erabakigarria izango zen abantailari nahiko erraz eutsi zion errioxarrak amaiera arte. Emozioa jokoak baino markagailuak jarri zuen, izan ere, Olazabalek 17 tanto egin behar zituen txapelketan aurrera egiteko. 20-10 zihoztela, Rico IV.ak sakearekin huts egin zuen, eta errioxaren amakfrontoia uztea erabaki zuen, urduritasuna gailendu baitzitzaion. Ez zen horrenbestera izan, ordea, Olazabalek 12.a lortu bezain pronto, Rico IV.ak 21.a eta 22.a egin baitzituen.

Aurrera egitea lortu duen eskualdeko pilotari bakarra, bigarren mailan, Jon Jaunarena izan

da. Leitzarrak 22-15 irabazi zion Untoriari, ligaxkako hirugarren partida. Amazabal pilotalekuan jokatu zen norgehiagoka, eta emaitza horrekin bi pilotariek lortu zuten finalerdietarako txartela, B multzoan.

### Lehen maila

Bengoetxeak etxean jokatu zuen ligaxkako bigarren partida, Xalaren aurka. Amazabal pilotalekura gerturatu zirenek, lehia estua ikusi zuten, azken emaitza horren adibide: 22-20. Garaipen honekin Bengoetxea VI.ak ligaxkako lehen puntua lortu zuen. Hurrengo partida, Arretxe II.aren aurka jokatu du leitzarrak.

Barriolak igandendean jokatu zuen bere partida, Julen Retegiren aurka. Hasiera parekatu baten ondoren, partidaren bigarren zatian nagusitu zen. Leitzarrak garaipen honekin lehen puntua lortu zuen, eta finalerdietarako txartela bere eskuetan dauka. Hurrengo lehia irabazi beharko du, Martinez Irujoren aurka.



Korrika egin ostean, bizikleta hartu zuten 103 partaidek. JONE AMONARRIZ

## Jon Erguin eta Amaia Luquin nagusi, Amasan

Aitziber Ibarbia zizurkildarrak eta Luis Mari Urizar billabonarrak bigarren amaitu dute

### A. Imaz Amasa

Euskal Herriko zirkuituko mendi duatloi proba jokatu zen igandean Amasan. Jon Erguin eta Amaia Luquin nagusitu ziren bertan, mutiletan eta nesketan. Hurrenez hurren, 1:12:08ko eta 1:39:05eko denbora egin zuten.

Amasako mendi duatloia 103 partaidek amaitu zuten, nahiz eta

eguraldia lagun ez izan. Gizonezkoetan, bigarren postuan Luis Mari Irizar billabonarra sailkatu zen, irabazlearengandik minutu bat eta hamaika segundora. Hirugarren, Unai Yus izan zen. Emakumezkoetan, Aitziber Ibarbia zizurkildarra izan zen bigarrena, 1:42:36ko denborarekin, eta Laura Perez hirugarrena. Guztira zortzi emakumek osatu zuten ibilbidea.

Lehen sektorean, kirolariek 3,86 kilometro egin zituzten korrika. Ondoren, mendi bizikleta hartu eta 17,79 kilometro aritu ziren gelditu gabe, azken sektorean, berriro korrika aritzeko, 1,62 kilometro.

## Zalduak eta Irazuk apustua jokatu dute

### A. Imaz Zizurkil

Jon Irazuren behatzak hobera egin du, eta ondorioz, urtarrilaren 27an apustua jokatu du Xabier Zalduaren aurka. Desafioa Tolosako zezen plazan izango da, 12:00etan. Alde bakoitzak 6.000 euro jarriko ditu mahai gainean, eta aizkolariek hamalau enbor

moztu beharko dituzte. Zalduak hamar kanaerdiko emango ditu plazara, eta Irazu zizurkildarrak lau oinbiko.

Xabier Zalduarentzat bosgarren apustua izango da, eta Jon Irazurentzat lehena. Zizurkildarrak duela hilabete gutxi irabazi zuen Euskal Herriko bigarren mailako aizkora txapelketa.

### Hilberriak eta urteurrenak

## ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info

## JACINTO VEGAS SAMPEDRO jauna

*Beti izango zaitugu inoiz baino bertago, gure bihotz xokoan, gure lagun, gure babesle.*

Langaitz Ikastola



Ereñterria-Oreñterria, 2012ko azaroaren 6a




## MARIAN SARASOLA IZAGIRRE

*Beti gogoratuko zaitugu lankide jator eta pertsona ezinhobe bezala. Zaila izango da zu ahaztea.*

Zure lankideak

Ibarren, 2012ko azaroaren 6a



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak SM  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza.** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Eneritz Maiz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info  
**Anoeta:** 687 410 022. anoetaldea@hitza.info  
**Ibarraldea:** 687 410 118. ibarraldea@hitza.info  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info  
**Leitza:** 687 410 118. leitzaaldea@hitza.info

**Tolosa Herria Hedabideak SM-ko kideak:**

**BERTAKO HEDABIDEAK**



**Galtzaundi euskara taldea**



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. **Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Irura, Larraul, Leitza, Lizartza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## Irudia Baliarrain



## KULTUR ELEJIRAN, BETE BETEAN

Pasa den ostiralean hasi zuten, Baliarrainen, Kultur Elejira, eta errota izan zen protagonista. Lehen egunean bertako funtzionamendua ezagutzeko bideo bat ikusi zuten, eta larunbatean, errotarekin jarraitzeko, Orendaingo errotara egin zuten bisita. Bertan, artoa nola txikitzen duten ikusteko aukera

izan zuten. Baita arto irina erostekoa ere. Behin Baliarrainera bueltatuta, Harkaitz elkartearen bildua eta afari merienda egin zuten. Taloak egiteko ardua, berriz, ume eta gazteek izan zuten. Igandean, Erretiratuen Eguna ospatu zuten, eta gaztaina jatea ere egin zuten. E. MAIZ

## Agurrak

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

**AGURRAK**  
943-65 56 95 [tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info)

**agurrak**

## Agenda

### DEIALDIAK

- **Ibarra.** Espainiako gobernuak udaletxeetan Espainiako bandera jartzeko emandako agindu dela eta, udalak bilera deitu du gaurko. 19:30ean bilduko dira udaletzeko batzar aretoan.
- **Tolosa.** Ezker abertzaleak-ek deituta herri batzarra gaur, 20:00etan, udaletxean, hauteskunde balorazioa egiteko.
- **Amezketak.** Ez ohiko osoko bilkura, gaur, 20:30ean. 2013. urteran aplikagarri izango diren ordenantza fiskalak onartuko dituzte, besteak beste.
- **Alegia.** *Nola dakit nire etxea osasuntsua dela?* hitzaldia, gaur, 19:30ean, kultur etxean, Koldo Nuñezek eskutik.
- **Tolosa.** Gure kaiola elkartearen azaroaren 18ko babarrun lehiaketa parte hartu nahi dutenek hilaren 9a bain lehen eman behar dute izena [aiglesias@hirukide.org](mailto:aiglesias@hirukide.org) helbidean.
- **Tolosa.** Txinparta elkarteak

antolatzen duen Nork Txapela Hobeto Jantzi lehiaketa parte hartu nahi duenak, 699 169 243 telefonora deitu behar du.

### ERAKUSKETAK

- **Larraul.** Karmele Pellejeroren lanak, ostatuan. Era berean, Koldo Jauregiren aho soinuaren bilduma museo etnografikoan.

### Farmaziak

### GAUR

- **Tolosa.** Egunekoa eta gauekoa: Bronte, C. I. Korreo kalea, 20. Telefonoa: 943 67 60 13.
- **Leitza.** Larraia, M. I. Elbarren, 95. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

Egin HITZako harpidedun azaroaren 30a baino lehen

eta jaso Mahala baserriko produktuez osatutako saski ederra

**OPARI**



eta...

... HITZaren harpidedunen artean **bi pertsonentzako harri bolkanikodun masaje geotermala (30') + jacuzzi sesioa** zozkatuko dugu



**hitza** info

harremanetarako:  
902 82 02 01  
[harpidetza@hitza.info](mailto:harpidetza@hitza.info)